## LEZOKO UDALA

*Tomas Garbizu Lezoko Udal Musika Eskolaren Barne Araudi Berriari (EBA) behin betiko onarpena ematea 2009KU290003.*

Udalbatzarrak, 2009ko abenduaren 2an egindako ohizko bilkuran, Tomas Garbizu Lezoko Udal Musika Eskolaren Barne Araudi Berria (EBA) behin betikoz onartu zuen.

Ondoren transkibatzen da:

### AURRE-TITULUA

*1. artikulua.*

«Tomas Garbizu» Lezoko Udalaren Musika Eskola Lezoko Udalbatzak sortu zuen 1986ko abenduaren 22ko osoko bilkuran.

Irakaskuntza arautu gabearen helburuak bere egiten ditu kultura sortu, kritikatu eta hedatzeari dagokienez, musika diziplinen alorra berezitzat eta lehentasunezkotzat edukita.

Arduratzat diru ikasketa antolatzea, irakaskuntza bideratzea eta Eskolaren Heziketa Proiektuan dauden diziplinen ikerketa garatzea, baita bere alorreko zerbitzu publikoa emateari berez dagokion administrazio gestioa.

«Tomas Garbizu» Lezoko Udalaren Musika Eskola arautzeko kontuan hartuko dira Barne Araudi hau, Euskadiko Autonomia Erkidegoko Musika Eskolak, musika irakaskuntza arautu gaberako ikastetxeak nola sortu eta antolatu arautzen duten arauak eta aplikatu beharreko gainerako arauak.

*2. artikulua.*

1. Musika eskola baten jardunbidearen eta autonomiaren oinarria da Eskolaren Heziketa Proiektuko programazioak eta helburuak koordinatzea.

2. Autonomia horri esker, irakasleek eta ikasleek beren erantzukizunak bete ditzakete Lezok dituen kultur beharrak ase ahal izateko.

*3. artikulua.*

Araudi honen aplikazio eremua «Tomas Garbizu» Lezoko Udalaren Musika Eskola da eta Eskolaren titularra den Lezoko Udalaren menpe dago.

*4. artikulua.*

«Tomas Garbizu» Lezoko Udalaren Musika Eskolan sartzeak Barne Araudi hau eta Eskolaren Heziketa Proiektua onartzea dakar.

### I. TITULUA

### XEDAPEN OROKORRAK

*5. artikulua.*

«Tomas Garbizu» Lezoko Udalaren Musika Eskolaren helburu nagusia da Lezon musika jarduerak sustatzea. Horretarako, musikarako orientazioa gorabehera, musika ikasteko aukera ematen die adin guztietako afizionatuei, betiere eskaintza eta eskaria, Eskolaren ezaugarriak eta Udalaren aurrekontua kontuan hartuta.

## AYUNTAMIENTO DE LEZO

*Aprobación definitiva del nuevo Reglamento de Régimen Interno de la Escuela Municipal de Música Tomas Garbizu de Lezo 2009KU290003.*

El Ayuntamiento Pleno, en sesión ordinaria celebrada el 2 diciembre de 2009, acordó aprobar definitivamente el nuevo Reglamento de Régimen Interno de la Escuela Municipal de Música Tomas Garbizu de Lezo.

A continuación se transcribe el texto íntegro:

### TITULO PRELIMINAR

*Artículo 1.º*

La Escuela Municipal de Música «Tomas Garbizu» de Lezo, fue creada por acuerdo plenario del Ayuntamiento de Lezo, el 22 de diciembre de 1986.

Es un centro que participa de los fines de la enseñanza no reglada en orden a la creación, critica y transmisión de la cultura desde el campo especifico y prioritario de distintas disciplinas musicales.

Esta encargado de la organización del estudio, la impartición de la docencia y el desarrollo de las disciplinas incluidas en su Proyecto Educativo del Centro (PEC), así como de la gestión administrativa inherente a la prestación del servicio público de su especialidad.

La Escuela Municipal de Música «Tomas Garbizu» de Lezo, se regirá por este Reglamento de Régimen Interno (RRI) y demás normas que regirán la creación y funcionamiento de los centros de Enseñanza Musical especifica, no reglada, Escuelas de Música, en la Comunidad Autónoma de Euskadi y por las restantes normas que le sean de aplicación.

*Artículo 2.º*

1. La actividad de un centro de Enseñanza Musical, así como su autonomía, se fundamentan en la coordinación de las distintas programaciones, y objetivos dentro del Proyecto Educativo del Centro (PEC).

2. Esta autonomía exige y hace posible que docentes y estudiantes cumplan con sus respectivas responsabilidades en orden a la satisfacción de las necesidades culturales del pueblo de Lezo.

*Artículo 3.º*

El ámbito de aplicación del presente reglamento es la Escuela Municipal de Música Tomás Garbizu de Lezo, dependiendo de su titular el Ayuntamiento de Lezo.

*Artículo 4.º*

El ingreso en la Escuela Municipal de Música «Tomas Garbizu» de Lezo supone la aceptación de este Reglamento de Régimen Interno (RRI) y de su Proyecto Educativo del Centro (PEC).

### TITULO I

### DISPOSICIONES GENERALES

*Artículo 5.º*

La Escuela de Música Municipal «Tomas Garbizu» de Lezo (TGLUME), es un centro de enseñanza musical, cuya finalidad principal es fomentar el desarrollo de las actividades musicales en el municipio de Lezo. Para ello ofrece una formación práctica en música, dirigida a aficionados de cualquier edad, sin perjuicio de su función de orientación, teniendo especial trascendencia la demanda - oferta existente y las características del Centro, así como la disponibilidad presupuestaria del Ayuntamiento de Lezo.

*6. artikulua.*

Hauek izango dira eskaintzaren helburuak:

— Irakaskuntza arautu gabea eta praktikoa izango da, talde jarduerak egiteko eta ikasleengan ahozko taldeetan eta talde instrumentaletan parte hartzeko interesa pizteko.

— Irabazi asmorik gabeko eskaintza izan arren, baliabideak optimizatuko ditugu.

— Ikasleei zuzenduta dago, adina kontuan hartu gabe, haurtzarotik zahartzarora.

— Musika Klasiko tradizionala, herri musika eta joera berriak jorratuko ditu, bere osotasunean.

— Irakaskuntzaren programazioa ikaslearen interesetara, dedikaziora eta erritmora egokituko da.

— Hainbat motatako kontzertu eta ikuskizun artistikoetara joateko gogoa bultzatu eta izaera kritikoa garatuko du ikasleen eta herritarrengan.

— Talentu eta bokazio berezia izanez gero, ikasleak irakaskuntza profesionalera bideratuko ditu.

— Ikaslearen parte-hartze aktiboa sustatuko du, banaka nahiz taldeka, publikoari zuzendutako barruko eta kanpoko entzunaldi eta emanaldietan, eta Eskolaren eta gizarte eremuaren elkar eragina bultzatuko du. Norberaren baitan hasi eta amaitzen den eta, ondorioz, gizartera zabaltzen ez den irakaskuntzak ez du zentzu handirik.

— Herriko eta eskualdeko ohiturak bildu, sistematizatu eta zabalduko ditu.

— Herriko kulturan eragin positiboa izango du, bai ikasleen bidez, bai musika taldeen etengabeko jarduera publikoa delaeta musikak gizartean duen hedatzeko ahalmen zuzenaren bidez.

## II.TITULUA

## GESTIO, ORDEZKARITZA ETA GOBERNU ORGANOAK

*7. artikulua.*

Hauek dira «Tomas Garbizu» Lezoko Udalaren Musika Eskolako organoak:

a) Eskola Kontseilua.

b) Irakasleen Klaustroa.

c) Zuzendaria.

### I. KAPITULUA. ESKOLA KONTSEILUA

*8. artikulua.*

Eskola Kontseiluak bere gain hartuko du «Tomas Garbizu» Lezoko Udalaren Musika Eskolako Gestioa eta Gobernua eta honako hauek izango dira kideak:

a) Kontseilu burua. Lezoko Udaleko Alkatea edo bera ordezkatzeko izendatutako pertsona.

b) Kontseiluko kideak. Ordezkari bat Udalean ordezkaritza duen alderdi politiko bakoitzeko.

c) Ikasleen gurasoen ordezkari bat.

d) Ikasleen ordezkari bat.

e) Irakasleen ordezkari bat.

f) «Tomas Garbizu» Lezoko Udalaren Musika Eskolako zuzendaria.

*Artículo 6.º*

La oferta tendrá como objetivos:

— La enseñanza será de carácter no reglado y de componente eminentemente práctico con el fin primordial de realizar actividades grupales fomentando en los alumnos interés por la participación en los grupos vocales y instrumentales.

— Sin ningún ánimo de lucro, lo cual nunca deberá estar reñido con la optimización de los recursos.

— Dirigida a alumnas/os sin consideración a su edad, desde la infancia a la vejez.

— Abarcará toda la gama existente en torno a la actividad, tanto en Música Clásica, de raíz tradicional, como popular y de nuevas tendencias.

— Adecuará la programación de la enseñanza a los intereses, dedicación y ritmo de aprendizaje del alumno/a.

— Potenciará el gusto por la asistencia a conciertos y espectáculos artísticos de diferentes estilos y desarrollará un espíritu crítico, tanto a nivel del alumnado como de la población.

— Orientará aquellos casos en que el especial talento y vocación del alumnado aconseje su acceso a una enseñanza de carácter profesional.

— Fomentará la participación activa del alumnado, a nivel individual y grupal, en audiciones y actuaciones internas y externas dirigidas al público, y la interacción escuela-ámbito social en que se encarna. Un aprendizaje que empieza y acaba en uno mismo, sin trascendencia a la sociedad, pierde gran parte de su propia razón de ser.

— Recogerá, sistematizará y difundirá las tradiciones locales y comarcales.

— Incidirá positivamente en la cultura popular musical, no sólo a través del propio alumnado, sino también por la acción difusora directa de la música en la sociedad mediante una constante actividad pública de sus grupos musicales.

## TITULO II

## LOS ORGANOS DE GESTION, REPRESENTACIÓN Y GOBIERNO

*Artículo 7.º*

Los órganos de la Escuela Municipal de Música «Tomas Garbizu» de Lezo, son:

a) El Consejo Escolar.

b) El Claustro del Profesorado.

c) La/El Directora/Director.

### CAPITULO I. EL CONSEJO ESCOLAR

*Artículo 8.º*

El Consejo Escolar asumirá el Gobierno y Gestión de La Escuela Municipal de Música «Tomas Garbizu» de Lezo y estará integrado por los siguientes miembros:

a) Presidenta/e. La/El Alcalde del Ayuntamiento de Lezo o persona en quien delegue.

b) Vocales. 1 representante por cada grupo político con representación en la corporación municipal.

c) Un representante de madres-padres del alumnado.

d) Un representante del alumnado.

e) Un representante del profesorado.

f) La/El Directora/Director de la Escuela Municipal de Música «Tomas Garbizu» de Lezo.

*9. artikulua.*

Eskola Kontseiluaren zereginak izango dira:

a) Udal organo eskudunak onartu beharreko plan orokorrak eta aldizkako jarduera programak proposatzea.

b) Organo eskudunari proposatzea agintaritza administratiboen, gubernatiboen eta judizialen aurrean erreklamazioak eta akzioak jar ditzala, bere jarduera eremuaren barruan.

c) Udal organo eskudunari proposatzea mota guztietako ekintzak eta kontratuak, bere jarduera eremuaren barruan.

d) Udal organo eskudunari proposatzea «Tomas Garbizu» Lezoko Udalaren Musika Eskolako langileen plantilla onar dezala.

e) Udal organo eskudunari proposatzea Eskolaren Heziketa Proiektua onar dezala, ondoren udal organo eskudunak berresteko.

f) Eskolaren Urteko Proiektua eta Urteko Memoria onartzea, ondoren udal organo eskudunak berresteko.

g) «Tomas Garbizu» Lezoko Udalaren Musika Eskolaren aurrekontua proposatzea, Udalaren Aurrekontu Orokorrean sartzeko.

h) Eskolako Barne Araudiaren aldaketak proposatzea, udal organo eskudunak onartzeko.

i) Matrikulazioaren prezio publikoak proposatzea, udal organo eskudunak onartzeko.

j) TGLUME ko Barne Araudiak onartu.

*10. artikulua.*

Eskola Kontseilua urtean hirutan bilduko da.

Kontseilu buruak beharrezkotzat jotzen duenean edo gutxienez bi kontseilu kideek idatziz eskatzen dutenean, ezohiko kontseilu bat deitu ahal izango da.

Gutxienez bi kontseilukidek idatziz eskatzen dutenean, eskatu zenetik kontatzen hasita hamabost egun natural baino lehen deitu beharko da.

*11. artikulua.*

Bileran parte hartzen duten kideen gehiengo soilez hartuko dira Eskola Kontseiluaren erabakiak. Erabaki baten aldeko eta aurkako boto kopurua berdina izanez gero, Kontseiluburuak erabakiko du, bilera horretan bertan, bere kalitate botoa baliatuz.

Alderdi politikoen ordezkarien botoa zenbatzeko, alderdi horrek udalean dituen hautetsiak kontuan hartuko dira.

Quoruma: Bileran hartutako erabakiek balioa izango badute, kideen erdiak eta bat gehiago egon behar dute. Lehen deialdian gutxieneko kide kopurua agertzen ez bada, handik hamabost minutura bigarren deialdia egingo da. Horrelakoetan, nahikoa izango da kideen herena bertaratzea eta, nolanahi ere bertaratutakoen kopurua ez da hiru kidetik beherakoa izango.

*12. artikulua.*

— Eskola Kontseiluaren bileretan idazkari lanetan arituko da Udal idazkaria edo bera ordezkatzeko izendatutako pertsona. Idazkariak Eskola Kontseiluaren bileren aktak egingo ditu eta, bertan, alderdi hauek idatziz jasoko ditu:

*Artículo 9.º*

Corresponde al Consejo Escolar las siguientes funciones:

a) Proponer los planes generales y programas periódicos de actuación que habrán de ser aprobados por el órgano competente municipal.

b) Proponer al órgano competente municipal la interposición de reclamaciones y acciones ante las autoridades administrativas, gubernativas y judiciales, dentro del ámbito de su actuación.

c) Proponer al órgano competente municipal toda clase de actos y contratos en el ámbito de su actuación.

d) Someter al órgano competente municipal la aprobación de la plantilla del personal de TGLUME.

e) Proponer al órgano competente municipal la aprobación del Proyecto Educativo de Centro (P.E.C.) para su posterior ratificación por el órgano municipal competente.

f) Aprobar el Proyecto Anual y la Memoria Anual del Centro para su posterior ratificación por el órgano municipal competente.

g) Proponer el presupuesto de TGLUME a fin de incluirlo en el Presupuesto General del Ayuntamiento.

h) Proponer las modificaciones del Reglamento de Régimen Interno (RRI) para su aprobación por el órgano municipal competente.

i) Proponer los precios públicos de matriculación para su aprobación por el órgano municipal competente.

j) Aprobar las Normativas Internas de TGLUME.

*Artículo 10.º*

El Consejo Escolar se reunirá 3 veces al año.

Siempre que se estime necesario por la Presidencia o lo soliciten por escrito 2 miembros mínimo del Consejo Escolar se podrá convocar un consejo extraordinario.

En el último supuesto, la celebración no podrá demorarse más de quince días naturales desde que se solicitó.

*Artículo 11.º*

Los acuerdos del Consejo Escolar se adoptaran por mayoría de votos de sus miembros y en caso de empate corresponderá a la /el Presidenta/e decidir, en la misma sesión, con voto de calidad.

El voto de los representantes de los grupos políticos será ponderado según el número de electos de ese grupo en la corporación municipal.

Quórum; Para la constitución válida del Consejo Escolar, se precisará la asistencia de la mitad más uno de sus miembros. Si no existiera quórum, se constituirá en segunda convocatoria 15 minutos después de la señalada para la primera siendo suficiente la asistencia de la tercera parte de sus miembros y, en todo caso un número no inferior a 3.

*Artículo 12.º*

— En las reuniones del Consejo Escolar, intervendrá como secretaria/o la/el secretaria/o del Ayuntamiento o persona en quien delegue y su función principal será la de levantar las correspondientes actas de las reuniones del Consejo Escolar, en la cual hará constar:

— Bileraren eguna eta hasiera ordua eta amaiera ordua, bertaratutako kideak, aztergaiak, bozkatzeko modua eta emaitza, eta onartutako erabakien edukiak.

— Eskola Kontseiluko kideek lau urteko agintaldia izango dute, izendapena jaso eta kargua hartzen duten egunetik kontatzen hasita, eta kargua utziko dute agintaldia bukatzean, edo karguari uko egin diotelako edo kargutik kendu dituztelako.

— «Tomas Garbizu» Lezoko Udalaren Musika Eskolako guraso eta ikasleen ordezkariak hautatzeko, horretarako onartu den araudi espezifikoa hartuko da kontuan.

— Aktak behar bezala artxibatuko dira eta kontseiluburuak eta idazkariak izenpetuko dituzte, eta hurrengo bileran onartuko dira.

Akta horiek publikoak izango dira eta eskola komunitateko edozein kideren esku egongo dira.

*13. artikulua.*

Kontseiluburuaren zereginak izango dira:

a) «Tomas Garbizu» Lezoko Udalaren Musika Eskola legalki ordezkatzea, mota guztietako agintari eta organismoen aurrean.

b) Eskola Kontseiluaren bilerak deitzea, zuzentzea, bertan behera uztea eta amaitutzat ematea.

II. KAPITULUA. IRAKASLEEN KLAUSTROA

*14. artikulua.*

1. Irakasleen Klaustroa da irakasleek eskolan parte hartu ahal izateko organoa eta bere zeregina da irakaskuntzari lotutako alderdi guztiak planifikatzea, koordinatzea, erabakitzea eta, hala badagokio, alderdi horien berri ematea.

2. Klaustroaren burua «Tomas Garbizu» Lezoko Udalaren Musika Eskolako zuzendaria izango da eta eskolan lan egiten duten irakasle guztiek osatuko dute.

3. Klaustroak ohiko bilkura egingo du hiru hilean behin eta ikasturtearen hasieran eta amaieran, eta ezohiko bilkurak egingo ditu Eskolako zuzendariak eskatzen duen bakoitzean, edo gutxienez, Klaustroko kideen herenak zuzendariari idatziz eskatzen dionean.

Kide guztiek nahitaez joan behar dute Klaustroaren bilkuretara. Joaten ez badira, aurretik, behar bezala justifikatu beharko dute zuzendariaren aurrean.

*15. artikulua.*

Irakasleen Klaustroaren zereginak izango dira:

1. Eskolako Zuzendariari proiektuak garatzeko proposamenak egitea.

2. Eskolaren Curriculum Proiektuak eta irakaskuntza alderdiak onartzea eta ebaluatzea, Eskolaren Hezkuntza Proiektuaren eta Eskolaren Urteko Programazioaren arabera.

3. Ekimenak sustatzea esperimentazio eta ikerketa pedagogikoaren eremuan eta Eskolako irakasleen trebakuntzaren arloan.

4. Ikasleen orientazio, ebaluazio eta errekuperazio funtzioak koordinatzea.

5. Hezkuntza Administratiboak Eskolari buruz egiten duen ebaluazioaren gaineko emaitzak edo Eskolaren funtzionamenduaren gaineko edozein agiri aztertzea eta baloratzea.

— Día y hora en que comience y finalice la sesión, miembros asistentes, puntos principales de deliberación, la forma y resultado de la votación y los contenidos de las resoluciones aprobadas.

— El mandato de los miembros en el Consejo Escolar será de 4 años contados a partir de su nombramiento y correspondiente toma de posesión, cesando en sus funciones al término de su mandato, o en caso extraordinario, por renuncia o destitución.

— El reglamento para la elección de los representantes de madres-padres y alumnas/os en el Consejo Escolar de TGLUME, se regulará mediante la normativa específica aprobada para tal fin.

— Las actas serán archivadas en forma conveniente y firmadas por la/el presidenta/e y secretaria/o, siendo aprobadas en la siguiente reunión.

Estas actas serán públicas y podrán ser consultadas por cualquier miembro de la comunidad educativa.

*Artículo 13.º*

Corresponde a la/el presidenta/e del Consejo Escolar las siguientes competencias:

a) La representación legal de la Escuela Municipal de Música «Tomas Garbizu» de Lezo, ante toda clase de autoridades y organismos.

b) Convocar, presidir, suspender y levantar las reuniones del Consejo Escolar.

CAPITULO II. EL CLAUSTRO DEL PROFESORADO

*Artículo 14.º*

1. El Claustro del profesorado es el órgano propio de participación de éstos en el gobierno del centro y tiene la responsabilidad de planificar, coordinar, decidir y, en su caso informar sobre todos los aspectos docentes del mismo.

2. El Claustro estará presidido por La/El Directora-Director de TGLUME y estará integrado por la totalidad del profesorado que preste servicio en el centro.

3. El Claustro se reunirá con carácter ordinario una vez al trimestre y al principio y final de curso, así como con carácter extraordinario siempre que lo solicite La/El Directora/Director del Centro, o bien un tercio, al menos, de los miembros del Claustro por escrito a la/al Directora/Director.

La asistencia a las sesiones del Claustro es obligatoria para todos sus miembros. Cualquier ausencia habrá de ser debidamente justificada previamente y ante La/El Directora/Director.

*Artículo 15.º*

Competencias del Claustro de Profesorado.

1. Formular a La/El Directora/Director del Centro propuestas para la elaboración de los proyectos del mismo.

2. Aprobar y evaluar los proyectos curriculares y los aspectos docentes, conforme al Proyecto Educativo del Centro y la Programación Anual del Centro.

3. Promover iniciativas en el ámbito de la experimentación y de la investigación pedagógica y en la formación del profesorado del Centro.

4. Coordinar las funciones referentes a la orientación, evaluación y recuperación de los alumnos.

5. Analizar y valorar los resultados de la evaluación que del Centro realice la Administración Educativa o cualquier informe referente a la marcha del mismo.

*16. artikulua.*

1. Klaustroaren bilkuretara joaten direnek hitz egiteko eta bozkatzeko eskubidea izango dute, zuzendariak eztabaida moderatu eta antolatzeko eskumena duen arren.

2. Jorratutako gaiek, 15. artikuluan jasotako eskumenen artean ez badaude, kontsulta izaera izango dute eta bozketek klaustrokideen kezkak baino ez dituzte adieraziko.

3. Hartutako erabakiaren aurkako botoa eta hala bozkatzeko arrazoiak jasoaraz ditzakete klaustrokideek. Hala bada, erabakiaren ondorioz izan litezkeen erantzukizunetik salbuetsirik geratuko dira.

*17. artikulua.*

1. Klaustroaren ohiko bilerak, gutxienez, astebete lehenago deitu behar dira, gai zerrenda barne, eta ohiz kanpokoak, bi egun lehenago.

2. Eskolako zuzendariaren eginkizuna izango da gai zerrenda egitea eta baita gai zerrendako aztergaien gaineko dokumentu guztiak Eskolako Administrazioari bidaltzea ere, Klaustroko kide guztien eskura egoteko.

3. Ohiko bilkuretako gai zerrendako azken puntua «Galde-eskeak» izango da. Puntu horretan, bertaratutakoek nahi beste galdera eta iradokizun egin diezaiokete zuzendariari, baina horrek ez du biderik emango landutako gaiak berriro aztertzeko.

4. Ezin izango da gai zerrendan ez dagoen gairik aztertu, Klaustroko kideen gehiengo absolutuak presazkotzat jo eta bilkuran aurkezten diren mozioak salbu.

*18. artikulua.*

1. Zuzendariak bilkuraren akta egingo du, honako hauek jasota: Eguna, ordua, tokia, aztergaiak eta erabakien edukia.

2. Aktak irakasleen ordezkariak izenpetuko ditu eta zuzendariak ontzat emango, eta bilkuran bertan edo hurrengoan onartuko dituzte.

## III. TITULUA

## GIZA BALIABIDEAK

*19. artikulua.*

«Tomas Garbizu» Lezoko Udalaren Musika Eskolak beharrezkoak diren langileak izango ditu. Langile horien kopurua, kategoria eta funtzioak Udalbatzak onartutako Lanpostuen Zerrendan zehaztuta egongo dira.

*20. artikulua.*

«Tomas Garbizu» Lezoko Udalaren Musika Eskolako langileen plantilla horrela egongo da osatuta:

a) Funtzionarioak.

b) Lan kontratudun langile finkoak.

c) Langile kontratudunak.

*Artículo 16.º*

1. En las sesiones del Claustro, todos los asistentes tendrán derecho a voz y voto sin perjuicio de las facultades de la/el Directora/Director en cuanto a la moderación y ordenación del debate.

2. Los asuntos tratados, que no estén dentro de las competencias recogidas en el artículo 15, tendrán carácter consultivo y las votaciones que se realicen serán solamente indicativas de las preocupaciones de los miembros del Claustro.

3. Los miembros del Claustro podrían hacer constar su voto contrario al Acuerdo adoptado y los motivos que lo justifican. En este caso, quedaran exentos de la responsabilidad que en su caso, pueda derivarse de dicho acuerdo.

*Artículo 17.º*

1. Las reuniones de Claustro ordinarias han de convocarse al menos con una semana de antelación, incluyendo el Orden del Día y las reuniones de Claustro extraordinarias con una antelación de dos días.

2. El Orden del Día será elaborado por la/el Directora/Director Centro, quien remitirá la documentación integra de los asuntos incluidos en el Orden del Día a la Administración del Centro donde estará a disposición de todos los miembros del Claustro.

3. Como último punto del Orden del Día figuraran, en las sesiones ordinarias, el de «Ruegos y Preguntas». En este momento, los asistentes podrán formular cuantas preguntas y observaciones quieran hacerse a la/al Directora/Director, en relación con temas propios de los cargos que ocupan, sin que ello sea ocasión para reabrir cuestiones ya tratadas.

4. No podrá ser objeto de acuerdo ningún asunto que no figure en el Orden del Día, salvo las mociones presentadas en la reunión que sean declaradas de urgencia con el voto favorable de la mayoría absoluta del número de miembros del Claustro.

*Artículo 18.º*

1. La/el Directora/Director levantará acta de cada reunión, en la que se incluirán las circunstancias de lugar y tiempo en que se ha celebrado, los puntos principales de deliberación y el contenido de los acuerdos.

2. Las actas serán firmadas por el representante del Profesorado, con el Visto Bueno del Director y se aprobaran en la misma o posterior sesión.

## TITULO III

## DE LOS RECURSOS HUMANOS

*Artículo 19.º*

T.G.L.U.M.E. dispondrá del personal necesario, cuyo número, categoría y funciones se determinaran en la Relación de los Puestos de Trabajo (RPT) aprobadas por el Ayuntamiento en Pleno.

*Artículo 20.º*

La plantilla de personal de TGLUME estará formado por:

a) Personal Funcionario.

b) Personal Laboral Fijo.

c) Personal Contratado.

## I. KAPITULUA. «TOMAS GARBIZU» LEZOKO UDALAREN MUSIKA ESKOLAKO ZUZENDARIA

### 1. ATALA. Funtzio administrativoak

*21. artikulua.*

«Tomas Garbizu» Lezoko Udalaren Musika Eskolako zuzendaria udal organo eskudunak izendatuko du.

*22. artikulua.*

Zuzendariaren eginkizun administratiboak izango dira:

1. Eskolaren legeak eta gainerako xedapenak betetzea eta betearaztea.

2. Zerbitzua zuzentzea eta bere gain hartzea, Kontseiluburuaren (alkatearen) edo bera ordezkatzeko izendatutako pertsonaren zuzendaritza eta ikuskaritzapean.

3. «Tomas Garbizu» Lezoko Udalaren Musika Eskolako aurrekontu orokorra Eskola Kontseiluari aurkeztea.

4. Musika Eskolara atxikitako langileen eta bulegoaren buru izatea.

5. Diru sarreren eta gastuen eragiketak bere gain hartzea eta Eskolaren kontabilitatea egunean eramatea.

6. Eskolaren izenean izenpetzea ordainagiriak eta barruko gutunak eta, oro har, Kontseiluburuak (alkateak) edo bera ordezkatzeko izendatutako pertsonak sinatu behar ez dituen agiriak.

7. Eskola Kontseiluari jakinaraztea egindako kudeaketak eta egoera ekonomikoa –horretarako, «Tomas Garbizu» Lezoko Udalaren Musika Eskolako kontabilitate eta diruzaintza eragiketak egiaztatuko ditu– eta baita kontuan hartu beharreko aurreikuspenak ere.

8. Eskola Kontseiluak erabakitako kudeaketak zuzentzea eta zerbitzuaren funtzionamendurako beharrezkotzat jotzen dituen neurriak har ditzan proposatzea.

9. «Tomas Garbizu» Lezoko Udalaren Musika Eskolari agindutako zerbitzuen eta udal administrazioaren eta Musika Eskolaren xede soziala den irakaskuntza, arte eta kultur jarduerearen artean beharrezkoa den koordinazioa bermatzea.

10. Eskola Kontseiluan jorratu beharreko gaiak antolatzea eta prestatzea.

11. Musika Eskolako barne aurreproiektuak egitea, jarduera programak, aurrekontuak, baliabide materialen eta giza baliabideen beharrak barne.

12. Eskola Kontseiluari irakasleen, ikasleen eta, oro har, Eskolako langileen eskabideak jasotzen dituen txostena helaraztea, baldin eta txosten horrek Kontseiluaren egitekoarekin zerikusia baldin badu.

13. Bere ardurapeko irakasle, ikasle eta zerbitzuengan dituen eginkizun akademikoak eta diziplinazko zereginak betetzea.

14. «Tomas Garbizu» Lezoko Udalaren Musika Eskolaren irizpideak abian jartzea eta politika kulturala eta musikala garatzea, eta egokitzat jotzen dituen ekimen guztiak Udalari proposatzea.

15. Harremanak izatea eta elkarlanean aritzea beste zentro batzuekin.

## CAPITULO I. DE LA/DEL DIRECTORA/DIRECTOR DE TGLUME

### SECCION 1.º Funciones administrativas

*Artículo 21.º*

La/El Directora/Director de TGLUME será nombrado por el órgano municipal competente.

*Artículo 22.º*

Serán funciones administrativas de la/del Directora-Director:

1. Cumplir y hacer cumplir las leyes y demás disposiciones del Centro.

2. Dirigir y responsabilizarse personalmente del servicio bajo la superior dirección e inspección de la Presidenta/Presidente (Alcalde) o persona en quien delegue.

3. Presentar el presupuesto general de TGLUME al Consejo Escolar.

4. Ejercer la jefatura de la oficina y del personal adscrito a la Escuela de Música.

5. Responsabilizarse de las operaciones de ingresos y gastos y llevar actualizada la contabilidad del Centro.

6. Llevar la firma de la Escuela, en recibos y correspondencia de orden interno y documentos en general no atribuidos a la firma de la/el Presidenta/e (Alcalde) o persona en quien delegue.

7. Informar junto con la/el técnico del Departamento de Hacienda al Consejo Escolar de las gestiones realizadas así como del estado de la situación económica comprobando las operaciones de contabilidad y tesorería de TGLUME y de las previsiones que hayan de tenerse en cuenta.

8. Dirigir las gestiones que acuerde el Consejo Escolar y proponer la adopción de cuantas medidas considere necesarias para el funcionamiento del servicio.

9. Asegurar la necesaria coordinación entre la administración municipal y los servicios de TGLUME. y la actividad docente, artística y cultural, que es el objeto social de la Escuela de Música.

10. Organizar y preparar los temas a tratar en el Consejo Escolar.

11. Elaborar los anteproyectos de régimen interno de la Escuela de Música incluyendo programas de actividades, presupuestos, necesidades de medios materiales y personales.

12. Elevar al Consejo Escolar con un informe, todas las instancias del profesorado, de los alumnos y en general del personal del Centro, siempre y cuando haga referencia a materias que competan al Consejo Escolar.

13. Ejercer las funciones académicas y disciplinarias sobre el profesorado, el alumnado y servicios a que se extienda su responsabilidad.

14. Poner en práctica las directrices y desarrollar la política cultural-musical de TGLUME proponiendo al Ayuntamiento cuantas iniciativas se consideren oportunas.

15. Mantener contactos y la debida cooperación con otros centros.

16. Parte hartzea ikasleak onartzean, irakasleak hautatzean eta egiaztagiri akademikoak eta ez akademikoak ematean, eta baita Eskolako gainerako ekintzetan eta kultura musikalarekin zerikusia duten beste jarduera batzuetan ere, indarrean dauden Legezko Xedapenek ezarritako moduan.

17. Bere kargu dauden zerbitzuak eta establezimenduak antolatzea, zuzentzea eta ikuskatzea, eta, batetik, irakaskuntza, arte eta kultur alderdiak oro har eta, bestetik, alderdi ekonomiko, administratibo eta teknikoak eta kudeaketa alderdiak koordinatzea.

18. Eskolan eragina duten laguntza zerbitzuetako ekintzak koordinatzea.

19. Bulego administratiboko lana antolatzea, planifikatzea eta kudeatzea.

20. Bulego administratiboko lana egitea, bideratzea eta koordinatzea.

21. Obren, zerbitzuen eta hornikuren kontratazioa proposatzea, indarrean dagoen xedapenarekin bat etorriz.

22. Eskola Kontseiluari urtero memoria bat bidaltzea irakaskuntzen egoerari, ikasturtean egindako hobekuntzei eta ikasleek eta irakasleek lortutako emaitzei buruzkoa, eta Eskola hobetzeko baliagarria eta onuragarria izan daitekeen guztia proposatzea.

23. Kontseiluburuari proposatzea Barne Araudia alda dezala.

24. «Tomas Garbizu» Lezoko Udalaren Musika Eskolako liburu ofizialak eta artxiboak zaintzea.

25. «Tomas Garbizu» Lezoko Udalaren Musika Eskolako inbentario nagusia, material didaktikoa eta ibilgetua eguneratzea.

26. Eskola materiala behar bezala erabiltzen dela zaintzea.

27. «Lesoinu» Aste Pedagogiko Musikala zuzentzea eta koordinatzea.

28. Beharrezkoak diren harremanak izatea prentsarekin eta komunikabideekin (iragarkiak, prentsa oharrak, elkarrizketak,) eta baita folklore eta bizitza lezoarrari lotutako elkarteekin ere.

29. Beharrezkoak diren harremanak izatea beste sail eta erakunde batzuekin, informazioa biltzeko eta kudeaketak koordinatzeko.

30. Erosketen kudeaketa egitea eta koordinatzea.

31. Eskolari buruzko arau berriak lortzea eta aplikatzea.

2. ATALA. Irakaskuntzaren arloko funtzioak

*23. artikulua.*

1. Zuzendariaren ahalmenak, «Tomas Garbizu» Lezoko Udalaren Musika Eskolako irakaskuntza arloari dagokionean, gaiari buruz nahitaez bete beharreko Legezko Xedapenek horri buruz diotenaren kalterik gabe ulertuko dira.

*24. artikulua.*

Hauek izango dira irakaskuntzaren arloari dagozkion funtzioak:

1. Klaustroan jorratu beharreko gaiak antolatzea eta prestatzea.

2. Eskolaren Plan Pedagogikoa egitea.

3. Eskolaren Urteko Plana egitea.

4. Eskola egutegia egitea.

16. Intervenir en el ingreso del alumnado, selección del profesorado y en la expedición de certificaciones académicas y no académicas y demás actos propios de la Escuela, y otras actividades relacionadas con la cultura musical, en la forma que establezcan las Disposiciones Legales vigentes.

17. Organizar, dirigir e inspeccionar los servicios, establecimientos a su cargo, coordinando los aspectos docentes, artísticos y culturales en generales con los aspectos económicos, administrativos, técnicos y de gestión.

18. Coordinar las actividades de los servicios de apoyo que incidan en la Escuela.

19. Organizar, planificar y gestionar el trabajo de la oficina administrativa.

20. Responsabilizarse de la ejecución, instrucción y coordinación del trabajo de la oficina administrativa.

21. Proponer la contratación de obras, servicios y suministros de acuerdo con la disposición vigente.

22. Remitir anualmente a la/al presidenta/e del Consejo Escolar una memoria sobre el estado de las enseñanzas, mejoras realizadas durante el curso, resultados obtenidos por alumnos y profesores y proponiendo cuanto se juzgue útil y conveniente al perfeccionamiento del Centro.

23. Proponer a la/al presidenta/e del Consejo Escolar la modificación del Reglamento de Régimen Interno. (R.R.I.).

24. Custodiar los libros oficiales y archivos de TGLUME.

25. Mantener actualizado el inventario general de TGLUME, material didáctico e inmovilizado.

26. Velar por el mantenimiento y buen uso del material de la Escuela en todos sus aspectos.

27. Dirigir y coordinar la Semana Pedagógico Musical Lesoinu».

28. Responsabilizarse de mantener los contactos necesarios con prensa y medios de comunicación (anuncios, notas de prensa, entrevistas,) así como con asociaciones relacionadas con el folklore y la vida Lezoarra.

29. Mantener los contactos necesarios con otras áreas e instituciones para recabar información y coordinar actuaciones de gestión.

30. Realizar y coordinar la gestión de compras.

31. Ocuparse de obtener y aplicar las novedades normativas referentes a la Escuela.

SECCIÓN 2.º Funciones docentes

*Artículo 23.º*

1. Las facultades de la/el Directora/Director, referidas al ámbito docente de la Escuela de Música TGLUME, se entenderán sin perjuicio de lo que al respecto establezcan las Disposiciones Legales de obligado cumplimiento sobre la materia.

*Artículo 24.º*

Serán funciones en el ámbito de la docencia las descritas a continuación:

1. Organizar y preparar los temas a tratar en el Claustro.

2. Elaborar el Plan Pedagógico del Centro. (P.E.C.).

3. Elaborar el Plan Anual del Centro. (P.A.C.).

4. Confeccionar el calendario escolar del Centro.

5. Koordinatzea eta zaintzea behar bezala betetzen direla Eskolaren Urteko Planarekin zerikusia duten irakasleen eta ikasleen eskola jarduerak.

6. Eskola ekitaldiak eta bilerak deitzea eta zuzentzea.

7. Eskolako irakaskuntza eskaintzaren irizpideak proposatzea, eskaintzaren eta eskariaren arabera, legeak eta Eskolako gainerako xedapenak kontuan hartuta.

8. Eskola Kontseiluari proposatzea plaza hutsak sortzea edo aldatzea, irakaskuntzaren beharren arabera.

9. Klaseen ordutegiari eta jardueren plan orokorrari buruzko irizpideak finkatzea eta irizpide horiek zorrotz betetzen direla bermatzea.

10. Eskolaren Heziketa Proiektuan ezarritako irizpide pedagogikoak betetzea.

11. Ikasketa orientazioko jarduerak koordinatzea.

12. Jarduera osagarriak eta zerbitzuetakoak programatzea eta koordinatzea.

13. Eskolako material didaktikoa zaintzea eta antolatzea.

14. Eskolako harremanak sustatzea eta bultzatzea inguruko instituzioekin, eta koordinazio egokia erraztea ondoko heziketa zerbitzuekin.

15. Halaber, agintzen dizkioten bestelako eginkizunak, lanpostua eskuratzeko eta betetzeko eskaturiko kualifikazioarekin bat datozenak betetzea, lehen aipatutakoez gain.

16. Beste edozein zeregin, bere eskumenen arabera beste organo kolegiatu bati espresuki ez dagokiona.

## II. KAPITULUA. IRAKASLEAK

### 1. ATALA. Lan arloko araudia

*25. artikulua.*

Irakasleek araudi hau, indarrean dauden xedapen orokorrak eta Lezoko Udaleko lan kontratudun langileen hitzarmen kolektiboa bete beharko dituzte.

### 2. ATALA. Eskubideak eta betebeharrak

*26. artikulua.*

